

Kutxabankek Google Pay integratu du, ordaintzeko era erraza, ziarra eta pribatua

- **Google Pay Kutxabanken edozein txartelari lotu dakioke**

2019ko uztailak 23. Kutxabankek Google Pay integratu du ordainketa digitalen bere irtenbide-eskaintzan, ordainketak telefonoen eta smartwatch bateragarrien bidez egiteko era erraza, ziarra eta azkarra.

Kutxabanken bezeroek dagoeneko Google Pay-n integratu ditzakete euren kreditu, zordunketa edo aurreordainketa txartelak, eta ordainketak egin denda fisikoetan, web-orrietan eta app-etan.

Segurtasuna eta pribatutasuna ditu ezaugarri Google Pay-k, izan ere, segurtasun geruza anitz ditu erabiltzailearen ordainketa-datuak babesteko, baita munduko aurreratuenetako bat den segurtasun-azpiegitura ere, beraz, erabiltzailearen datuak babestuta geratzen dira.

Gainera, telefono mugikorra dendetan ordaintzeko erabiltzen denean, Google Pay-k ez du banku-txartelari buruzko informaziorik partekatzen saltegiarekin. Horrela, bezeroaren datu pertsonalak babesteko zenbaki zifratu bakarra erabiltzen da.

Kutxabankek Google Pay sartu du bere ordainbideetan, bere bezeroen beharrian digitalei erantzuteko helburuz, kasu honetan, mugikorraren bidezko ordainketen arloan, hau da, teknologiak, lehiakide berriek eta erregulazioak aldaketa izugarriak eragiten ari diren eremuan.

Erosketak saltegietan egiteko nahikoa da erabiltzaileek telefonoaren pantaila piztearekin, eta telefonoa ordainketa-terminalera (TPV) hurbiltzearekin, ez da beharrezkoa desblokeatzea edo app-a zabaltzea. Smartwatch-en kasuan, nahikoa da Google Pay zabaldu eta terminalera hurbiltzearekin. Segundo gutxitan agertuko da eragiketaren baieztapena gailuaren pantailan.

Bezeroak e-commerce, web edo app-n erosketak egin nahi baditu, Google Pay erabil daiteke denda birtualean ordaintzeko. Horrela, nahikoa da ordainbide hori hautatzea eta bezeroak erabili nahi duen txartela aukeratzea eta erosketa eginda geratuko da.